

2019KO GARAGARRILAREN 11N EGINDAKO OHIKO UDAL BILKURA

Herria: Bakio

Tokia: Bakioko Udaletxea

Eguna eta ordua: 2019ko garagarrilaren 11n, arratsaldeko 7:00etan

BATZARKIDEAK:

Lehendakaria: AMETS JAUREGIZAR BARAIAZARRA andrea (EH Bildu)

Zinegotziak:

- MARÍA ISABEL BARTUREN LASA andrea (EH Bildu)
- MIREN GARBIÑE OLEALDEKOA ORBE andrea(EH Bildu)
- EGOITZ ABIO ARRILLAGA jauna (EH Bildu)
- IRATI ABIO MURUAGA andrea (EH Bildu)
- MARIA BEGOÑA ABIO ZAPIRAIN andrea (EAJ-PNV)
- GUILLERMO MARTÍN MARTÍN jauna (EAJ-PNV)
- GORKA URIARTE URAZURRUTIA jauna (EAJ-PNV)
- JOSÉ LUIS MARÍA URRUTIA BILBAO jauna (EAJ-PNV)
- JOSU GARAI VARA jauna (BAKIOBAI)
- JAVIER MIGUEL ALVARADO jauna (BAKIOBAI)

Helburua: Lehenengo deialdian, udalaren aparteko bilkura egitea. Era berean, kontuan hartu behar da Juan Francisco Eiguren Kortazar idazkariak bilkura horretako zinegotziei deitu deusela legeak agintzen dauanaren arabera, beti be Toki Erakundeetako Antolamendu, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko Araudiaren 38. Artikuluan azaldutakoa beteteko asmoz.

Idazkari jaunak batzarrari hasikera emoteko legezko “quorum”a dagoala egiaztatu orduko, alkate andrearen lehendakaritzapean honako gai honeek eztabaidatu eta erabagi dira:

**1.- UDALAREN ERAKETARI BURUZKO AKTA ONETSI, HALA BEHAR BALITZ.**

Gaurko batzarraren eguneko aztergaien zerrendagaz batera bialdu jake zinegotziei 2019ko bagilaren 15ean udala eratu eta alkatea izendatzeko egindako ohiko bilkuraren aktea, eta zinegotzietz akta hori aho batez onartu dabe.

2.- TALDE POLITIKOEN ERAKETAREN ETA BOZEROALEEN AUKERAKETAREN BARRI EMON.

Bai Toki Erakundeetako Antolamendu, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko Araudiaren 25. artikulua kontuan izanik, bai eta Euskadiko Toki Erakundeetako apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 34.5) artikulua be, idazkari jaunak, EH-BILDU, EAJ-PNV eta BAKIOBAI talde politikoen eraketaren barri emon dau, hurrenez hurren. **Hori guztia jakinda, udalaren osoko bilkura talde horreen eraketaren jakinaren ganean geratu da. Horrela bada, zinegotzien udal talde politikoak era honetara geratu dira osotuta:**

EAJ/PNV talde politikoa:

MARIA BEGOÑA ABIO ZAPIRAIN andrea (EAJ-PNV)  
 GUILLERMO MARTÍN MARTÍN jauna (EAJ-PNV)  
 GORKA URIARTE URAZURRUTIA jauna (EAJ-PNV)  
 JOSÉ LUIS MARÍA URRUTIA BILBAO jauna (EAJ-PNV)

Talde horretako bozeroaleak:

Titularra:

MARIA BEGOÑA ABIO ZAPIRAIN andrea

Ordezkoa:

JOSÉ LUIS MARÍA URRUTIA BILBAO

EH-BILDU talde politikoa:

AMETS JAUREGIZAR BARAIAZARRA andrea (EH Bildu)  
 MARÍA ISABEL BARTUREN LASA andrea (EH Bildu)  
 MIREN GARBIÑE OLEALDEKOA ORBE andrea (EH Bildu)  
 EGOITZ ABIO ARRILLAGA jauna (EH Bildu)  
 IRATI ABIO MURUAGA andrea (EH Bildu)

-Talde horretako bozeroaleak:

Titularra:

AMETS JAUREGIZAR BARAIAZARRA

Ordezkoak:

- 1) MARÍA ISABEL BARTUREN LASA
- 2) EGOITZ ABIO ARRILLAGA
- 3) IRATI ABIO MURUAGA
- 4) MIREN GARBIÑE OLEALDEKOA ORBE

BAKIOBAI talde politikoa

JOSU GARAI VARA jauna (BAKIOBAI)  
JAVIER MIGUEL ALVARADO jauna (BAKIOBAI)

Talde horretako bozeroaleak:

Titularra:

JOSU GARAI VARA

Ordezkoa:

JAVIER MIGUEL ALVARADO

**3.- INFORMAZINO BATZORDE IRAUNKORRAK SORTU ETA OSOTU ETA  
BATZARTUKO DIRAN EGUNAK ETA ORDUAK ZEHAZTU ETA  
INFORMAZINO BATZORDEETAKO BURUAK IZENDATU.**

Lehenengo eta behin, Toki Erakundeetako Antolamendu, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko Arautegiaren 124 eta 127. artikuluen arabera, Amets Jauregizar alkate andreak, talde politiko bakoxtari bialdutako idatziaren bidez, bost Informazino Batzorde Iraunkor sortzeko proposamena egin dau, zehaztuz, batetik, batzorde bakoxta bost kidek osotuko dabezala (2 EAJ/PNV, 2 EH-BILDU eta 1BAKIOKAI); eta, bestetik bilerak egingo diran egunak eta orduak.

Jarraian, talde politikoen bozeroaleek informazino batzorde horreetan parte hartuko dabezan zinegotzien izenak emon dabezan ezker, batzordeak era honetara geratu dira finkatuta:

Informazino Batzorde Iraunkorrek:

***BAKIO BIZI* INFORMAZINO BATZORDEA**

KIDE KOPURUA: 5

Guillermo Martín jauna eta Gorka Uriarte jauna, EAJ/PNV talde politikokoak

Isabel Barturen andrea eta Amets Jauregizar andrea, EH-BILDU talde politikokoak

Josu Garai jauna, BAKIOBAI talde politikokoa

Alkate andreak batzorde-burutza ondoko zinegotziari eskuordetzeko proposamena egin dau: *María Isabel Barturen Lasa*.

Bilera eguna eta ordua: hileko lehenengo astelehenean, arratsaldeko 7:00etan

**Batzordeak jorratuko dauzen arlo eta gaiak:**

Kultura eta euskerea.

- Hezkuntza.
- Kirola.
- Kultura.
- Euskera

**ONGIZATEKO INFORMAZINO BATZORDEA**

KIDE KOPURUA: 5

Guillermo Martín jauna eta Gorka Uriarte jauna, EAJ/PNV talde politikokoak

Miren Garbiñe Olealdekoa andrea eta Irati Abio andrea, EH-BILDU talde politikokoak

Josu Garai jauna, BAKIOBAI talde politikokoa

Alkate andreak batzorde-burutza ondoko zinegotziari eskuordetzeko proposamena egin dau: Miren Garbiñe Olealdekoa.

Bilera eguna eta ordua: hileko lehenengo astelehenean, arratsaldeko 8:00etan.

**Batzordeak jorratuko dauzen arlo eta gaiak:**

- Gizarte zerbitzuak.
- Gazteria.
- Nagusiak
- Parekidetasuna (Berdintsauna)
- Umeen kontseilua eta umeak
- Beharra eta enplegua.

**KOORDINAZINO INFORMAZINO BATZARRA**

KIDE KOPURUA: 5

Begoña Abio andrea eta José Luis Urrutia jauna, EAJ/PNV talde politikokoak

Isabel Barturen andrea eta Amets Jauregizar andrea, EH-BILDU talde politikokoak

Javier Miguel Alvarado jauna, BAKIOBAI talde politikokoa

Batzorde-burutza ondoko hau: *Amets Jauregizar Baraiazarra.*

Bilera eguna eta ordua: hileko bigarren astelehenean, arratsaldeko 7:00etan.

**Batzordeak jorratuko dauzen arlo eta gaiak:**

Egitura honen helburua alkatearen konpetentzia desberdinak beste talde politikoekin konpartitzea eta eztabaidatzea da. Ondoko gaiak lantzea proposatzen dugu:

- Dekretuak aztertzea.
- Herrian dauden arazo desberdinen azterketa egitea.
- Kontu Berezien Batzordea Koordinazio batzordearen barruan tratatuko dugu.
- Udalbatzeak onartu beharreko aurrekontuen eta aurrekontuez kanpoko kontuen inguruko ikerketak, azterketak eta txostenak.
- Era guztietako ekonomia eta ogasun gaiak.
- Udalerriko garapenaren inguruko gaiak (landa garapena, zerbitzuak eta turismoa).
- Udalean sortzen diren auzi desberdinen berri eman.

Egunero sortzen diren arazo eta auzi desberdinak aztertu nahi dira batzar honetan. Horretarako udal gobernutik gai hauen inguruko informazioa konpartitzeko eta informazio hau eztabaidatzeko konpromisoa hartzen dogu.

Batzar honen helburua egunerokotasunean sortzen diren arazoei konponbidea emotea ere izango da.

Erabagi proposamena egin beharra balego adostasun osoz egitea da helburua. Adostasuna egon ezean bozketa egingo litzateke. Bozketan plenoaren proportzioa jarraituko luke.

***BAKIO ERAIKI* INFORMAZINO BATZORDEA**

KIDE KOPURUA: 5

Begoña Abio andrea eta José Luis Urrutia jauna, EAJ/PNV talde politikokoak

Egoitz Abio jauna eta Amets Jauregizar andrea, EH-BILDU talde politikokoak

Javier Miguel Alvarado jauna, BAKIOBAI talde politikokoa

Alkate andreak batzorde-burutza ondoko zinegotziari eskuordetzeko proposamena egin dau: *Egoitz Abio Arrillaga*.

Bilera eguna eta ordua: hileko hirugarren asteko astelehenean, arratsaldeko 7:00etan.

**Batzordeak jorratuko dauzen arlo eta gaiak:**

- Ingurumena.
- Mugikortasuna eta irisgarritasuna.
- Urigintza, obrak eta zerbitzuak.
- Hirigintza Plan Orokorraren jarraipena

- Aldaketa klimatikoaren kontrako plana

## **OHIKO UDALBATZAK AURRETIKO INFORMAZINO BATZORDEA**

Batzorde horretan ohiko udalbatzako aztergaien barri emongo da, zinegotziak gai horreen espedienteen ganean azalpenak edo eritxiak emoteko aukerea izango dabe.

Batzordea zinegotzi guztiak osotutakoa izango da, eta batzorde burua alkate andrea izango da.

Informazino batzordeen egiturari buruzko azalpenak emon eta berehala, Begoña Abio zinegotziak eskatu dau Informazino Batzordeen bilerak publikoak izatea; legeak bilerak publikoak izatea ahalbideratzen dauzalako. Beste udal batzuetan publikoak izatea erabagi dabez, esate baterako Bilboko Udalean, eta, ganera,.

Horren harira, Amets alkate andreak dino: Informazino Batzordearen zereginetako bat da udalbatzarentzat erabagi-proposamenak egitea da, eta horretarako batzordeak espedienteak aztertu behar dauz, eta bertan pertsona juridiko eta pribatuei buruzko informazinoa egoten da; beraz, ez da egokia jendaurreko batzarra izatea, pertsonen datuak babesteko legea dala eta, eta berdin gertatzen da ongizateko gaiak lantzeko orduan. Udal Gobernu berbea emon dau Informazino Batzordeko aztergaiak eta aktak publikoak izango dirala eta udaleko wen gunean ipiniko dirala, baina datu pertsonalak ezkutatu.

Udal Idazkariak, dino Informazino Batzordearen zeregina udalbatzarrak hartu behar dauzan erabagien proposamena egitea dala, aurretiaz espedienteak aztertu ostean, jakina; bai eta, alkatearen eta tokiko gobernu batzordearen (organo hau sortzea erabagiten bada) kudeaketaren jarraipena egitea be; baina, erabagirik ezin dau hartu; beraz, bere erabakimena oso mugatua da.

Begoña Abio zinegotzi andreak dino Informazino Batzordearen bilerak, pertsonen datuen barri emoten ez diran bilerak publikoak izan leikezela.

Alkate andreak Begoñari erantzun deutso esanez: publikoaren aurrean zeintzuk espedienteak azaldu behar diran eta zeintzuk ez aztertzen ibiltea ez da erreza, eta ganera herritarren artean konfiantza falta sortzen dau. Guk gardentasun legea bete behar dogu, hau dau Batzordeen gai-zerrendak eta aktak publikatu eta horrela herritarrak badaki informazinoa nondik datorren, aktetan datu pertsonalak agertu barik.

Batzordeen publikotasunari buruz eztabaida izan da, Begoña Abio eta Amets Jauregizarren aldetik.

Azkenik, Udalaren Osoko Bilkurak, bertaratutako zinegotzien aho batez (guztira hamaika), erabagi hau hartu dau:

**Onartzea azalpen atalean zehaztutako Informazino Batzorde Iraunkorrek sortzea aitatutako gaiak landu eta zereginak beteteko, bai eta nortzuek osotuko daben eta batzorde-buruen izendapenei, bileren egunari eta ordutegiari jagokenez be.**

**Azkenik, Udalbatzak aho batez, hauxe erabagi dau: Informazino Batzordeen bileren publikotasunari buruz Informazino Batzordean eztabaidatzea, zehazteko ze erabagi hartu.**

#### **4.- TOKIKO GOBERNU BATZORDEA ERATU.**

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dauzan apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 20.1.b) eta 23. artikuluen arabera, Tokiko Gobernu Batzordea sortu daitekela kontuan hartuz, Amets Jauregizar alkate andreak, Tokiko Gobernu Batzordea sortzeko proposamena egin dau, esanez jorratuko dauzan gaiak, gehien bat, ogasun arlokoak izango dirala, beti be, aurretiaz zinegotzi guztiei bialdu deutesen informazinoaren arabera.

Alkate andreak, dino Batzorde hori hiru zinegotzik eta berak osotuta egongo dala, zinegotzial honeek izanik: *Irati Abio Muruaga, Josu Garay Vara eta Javier Miguel*.

Segiduan, udal idazkariak berbea hartu eta hauxe adierazo dau:

*Tokiko Gobernu Batzordea udal organoa da eta berez ez dauka eskumenik, daukazenak dira, batetik, alkateak eskuordetutakoak — horrek, eskumen guztiak eskuordetu daitez Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dauzan apirilaren 21.3) eta 71. artikuluetan zehaztutakoak ezik — eta; bestetik, udalbatzak eskuordetutakoak — horrek eskumen guztiak eskuordetu daitez Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dauzan apirilaren 22.4) artikuluan zehaztutakoak ezik — .*

*Batzordea Korporazinoko zinegotzien herenak gehi alkateak osotzen dabe eta — alkateak edota udalbatzak eskuordetutako gaiei buruz erabagiak hartuko badauz —, gitxienez, hamabost egunero ohiko batzarra egin behar dau, ohiko eta aparteko batzarrak egiteko eguna eta orduak zehazteko egunak alkateari jagokolarik.*

Begoña Abio zinegotzi andreak dino EAJ-PNV abstenidu egingo dala, ikusten ez dabelako batzorde horren eta ogasun betebeharren artean alderik dagoanik. Ganera, dino, ikusten dana dala bere osaeran EAJ-PNV kanpoan ixten dala, eta, beraz, ez dagozela prest aldeko botoa emoteko batzordea sortzeari jagokonez.

Begoña Abio andreak adierazo dau be Tokiko Gobernu Batzordearen batzarrak publikoak izan behar dirala, Euskadiko Toki Erakundeetako apirilaren 7ko 2/2006 legaren arabera.

Udal Idazkariak dinotso pribatuak izan behar dirala, horrela azaltzen dalako Toki Erakundeetako Antolamendu, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko Arautegiaren 53. artikuluan (Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dauzan Legean be ez dirala publikoak azaltzen da).

Alkate andreak dino batzar honen zeregina Tokiko Gobernu Batzordea sortzea dala, beste barik; eta, batzarren izaerari jagokonez, aurrerantzean ikusiko dala publikoak edo pribatuak izan behar diran; baina, udaleko aholkulari juridikoak bai esan dauala pribatuak izan behar dirala.

Beraz, EH Bildu taldea osotzen daben zinegotzien (Ametz Jauregizar, Irati Abio, Maria Isabel Barturen, Miren Garbiñe Olealdekoa eta Egoitz Abio) eta BakioBai taldea osotzen daben zinegotzien (Josu Garai eta Javier de Miguel) aldeko botoakaz, korporazinoa legez osotzen daben gehiengo zinegotziak izanik, Udalbatzak erabagi hau hartu dau:

### **Tokiko Gobernu Batzordea sortzea**

EAJ-PNV taldeko zinegotziak (Maria Begoña Abio, José Luis Urrutia, Guillermo Martín Martín) abstenidu egin dira, Maria Begoña Abio andreak adierazitakoagaz bat etorritz.

### **5.- UDALAREN OSOKO BILKURAK EGINGO DIRAN EGUNAK ETA ORDUAK ZEHAZTU.**

Alkate andreak aitatu dau udalaren osoko bilkurak egiteko egunak eta orduak erabagi behar dirala. Horrela, korporazinoako kideek honen inguruan eztabaidatu ostean eta Toki Araubideko Oinarriak araupetzen dauzan apirilaren 2ko 7/85 Legearen 46. artikuluan ezarritakoaren arabera, honakoa erabagi da bilkurara bertaratutako zinegotzi guztien aldeko botoagaz:

**Udalaren ohiko osoko bilkurak egitea hilabete bakotxaren azken eguenean, 19:00etan hasita.**

### **6.- KORPORAZINOKO ORDEZKARIAK IZENDATZEA UDALBATZAREN ESKUMENEKO KIDE ASKOTAKO ORGANOETAN.**

Alkate andreak ondorengo organo eta erakundeetan udal ordezkari honeek izendatzeko proposamena egin dau:

— *Haurreskolak Partzuergoa:*

Titularra: Amets Jauregizar Baraiazarra  
Ordezkoa: M. Isabel Barturen Lasa

- *“Urkitza” ikastetxearen Eskola Kontseilua.*

Titularra: María Isabel Barturen Lasa.  
Ordezkoa: Amets Jauregizar Baraiazarra.



**- *Gizarte zerbitzuen Mungialde Mankomunidadea.***

Titularra: Miren Garbiñe Olealdekoa Orbe.  
Ordezkoa: Amets Jauregizar Baraiazarra.

**- *Udalerrri Euskaldunen Mankomunidadearen (UEMA).***

Maria Isabel Barturen Lasa  
Maria Begoña Abio Zampirain  
Josu Garai Vara

**- *Bizkaiko Foru Aldundiko Baso Batzordea.***

Titularra: M. Isabel Barturen Lasa  
Ordezkoa: Amets Jauregizar Baraiazarra.

**- *Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa.***

Titularra: Egoitz Abio Arrillaga.  
Ordezkoa: Amets Jauregizar Baraiazarra.

**- *“Jata-Ondo” Mendi Nekazaritzako Alkartea***

Titularra: Amets Jauregizar Baraiazarra.  
Ordezkoa: Egoitz Abio Arrillaga.

**— *Haurreskolako jarraipen batzordea:***

Titularra: Amets Jauregizar Baraiazarra.  
Ordezkoa: Irati Abio Muruaga..

**— *Txakolinguneko jarraipen batzordea:***

Titularra: Amets Jauregizar Baraiazarra.  
Ordezkoa: Irati Abio Muruaga..

Udalaren Osoko Bilkurak, bertaratutako zinegotzien aho batez (guztira hamaika), erabagi hau hartu dau: **Bakioko Udalak organo eta erakunde bakoitzean izango diran ordezkariak jagokenez, arestian zehaztutako ordezkarien izendapenak onartzea.**

**7.- ALKATEAREN EBAZPENEN BARRI EMOTEA, ALKATEORDEA IZENDATZEARI JAGOKONEZ, BAI ETA TOKIKO GOBERNU BATZARREKO KIDEEI JAGOKONEZ BE.**

Alkate jaunak ondorengo gaien inguruan hartutako ebazpenen barri emon deustok korporazinoari:

**Alkateordearen izendapena:**

Toki Erakundeetako Antolamendu, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko Araudiaren 46. artikulua emondako ahalmen eta eskumenen arabera, alkate jaunak, bagilaren 17ko 129/2011 dekretuaren bidez, alkateorde zinegotzia hau izendatu dau: ***Irati Abio Muruaga anderea.***

Alkateordeak alkatearen zeregin guztiak hartu behar izango dauz honako kasu honeetan guztietan: batetik, alkateari bere zereginak betetzea ezinezko egingo jakon absentzia, gaixotasun edo beste trabaren bat egon ezker; bestetik, alkatetza bete barik dagoan kasuetan, harik eta alkate barria bere karguaz jabetu arte.

**Tokiko Gobernu Batzordeko kideen izendapenak:**

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dauzan apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 20.1.b) artikulua eta Toki Erakundeetako Antolamendu, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko Arautegiaren 35 eta 52 artikulua kontuan izanik, alkate andreak, garagarrilaren 8ko 244/2019 dekretuaren bidez, zinegotzi honeek Tokiko Gobernu Batzordeko kide izendatzea erabagi eban: ***Irati Abio Muruaga, Josu Garai Vara eta Javier de Miguel Alvarado*** (korporazinoa legez osotzen daben zinegotzien herenak).

**8.- ALKATETZAREN ERABATEKO DEDIKAZINOARI BURUZKO ERABAGIA HARTU.**

Atoan, gaiari helduz, idazkari jaunak, dino:

*Danok dakigun modura, Euskadiko Toki Erakundeetako apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 32. artikulua arabera, alkate andreak bere funtzinoak erabateko dedikazinoaren pean egiteko eskubidea dauka.*

*Hori horrela izanik, eta guztiei bialdu jaken informazinoaren arabera, alkatearen urteko ordainsari gordina 31.814,73 eurokoa izatea proposatzen da; izan be, zenbateko horrek ez dau gairiditzen Bizkaiko Foru Aldundiaren egonkortasunari buruzko 5/2013 Foru arauaren 5. xedapen gehigarriak ezarritako muga (2017ko aurrekontuari buruzko Foru Arauak erantsita).*

Horrenbestez: Bakioko Udalbatzak, zinegotzien aho batez (guztira 11) hauxe erabagi dau:

**Bakioko Udaleko alkate andreak bere funtzinoak erabateko dedikazinoaren pean egingo dauzan ezker, horregaitik jasoko dauan urteko ordainsari gordina**

**31.814,73 eurokoa izatea. Izan be, ordainsaria hamalau pagaren bidez ordainduko da, eurretari hamabi urteko hile baktxari jagokonez eta beste biak, barriz, bagilako eta abenduko hilei. Ganera, Gizarte Segurantzako erregimen orokorrean alta emonda egongo da, eta Korporazioak enpresa-kuoten ordainketak bere gain hartuko dauz.**

**Bakioko Udaleko beharginen ordainsariak – udal gairako araudi orokorrak ahalbideratuta – igoten diran portzentaje bardienean igotea alkatearen ordainsaria.**

**9.- 2019-2023 UDAL LEGEGINTZALDIAN, ZINEGOTZIEK UDAL ORGANOETAN PARTE HARTZEAGAITIK JAGOKEZAN DIRULAGUNTZAK, BAI ETA UDAL TALDEEI JAGOKEZAN DIRU SARIAK BE ONARTU.**

Hasteko, Amets Juaregizar alkate andreak dino zinegotzietan honerik buruzko informazioa bialdu jakela: udal organoetan parte hartzeagaitik zinegotzietan jasoko dabezan dirulaguntzak, bai eta udal taldeek be jasoko dabezanak; eta, udal gobernuaren ustez, informazio hori barriro aztertu beharra dagoan ezker, erabagirik ez hartzea proposatu dau, erabagia hartzea beste udalbatzar baterako itxiz.

Azkenik, Udalaren Osoko Bilkurak ez dau izenburuan aitatutako gaiari buruzko erabagirik hartu.

**10.- KONTRATAZINO MAHAI IRAUNKORRA SORTU.**

Sektore Publikoaren Kontratuak buruzko azaroaren 8ko 7/2017 Legearen 326. artikuluan eta bigarren xedapen gehigarrian, kontratazio-mahaiei buruz ezarritakoa betez, Bakioko Udalbatzak, bertaratutako zinegotzietan aho batez (guztira 11), erabagi hau hartu dau:

1.- Honako hauek – udal honetako funtzionario eta zinegotzietan artean – organo honen Kontratazio Mahaiko kide izendatzea modu iraunkorrez eta Udalbatzaren ahalmen arloko kontratu guztietarako:

**TITULARRAK**

Mahaiburua:

- Amets Jauregizar Baraiazarra andrea, Bakioko alkatea.

Mahaikideak:

- Juan Francisco Eiguren Cortazar jauna, Idazkari-Kontuhartzailea (Bakioko udal funtzionarioa).

- Jasone Longaray Barruetabeña andrea, Kudeatzaile Ekonomikoa (Bakioko udal funtzionarioa).

- Xabier López Querejeta jauna, Aparejadorea (Bakioko udal funtzionarioa).

- María Santisteban Díez andrea, Liburuzain-Agirizaina (Bakioko udal funtzionarioa).
- Joseba Terreros Gaston jauna, Euskara Teknikaria (Bakioko udal funtzionarioa).
- Josu Garai Vara jauna, Bakioko Udaleko Zinegotzia.
- José Luis Urrutia Bilbao jauna, Bakioko Udaleko Zinegotzia.

Idazkaria:

- M. Itxaso Urazurrutia Bilbao andrea, Administraria (Bakioko udal funtzionarioa).

## ORDEZKOAK

Mahaiburuarena:

- Irati Abio Muruaga andrea, Bakioko Alkateorde andrea.

Mahaikideenak:

- Gorane Oleaga Larrauri, Gizarte eta Kultura gaietarako Dinamizatzailea (Bakioko udal funtzionarioa); María Begoña Abio Zapirain, Bakioko Udaleko Zinegotzia; eta Javier Miguel Alvarado, Bakioko Udaleko Zinegotzia.

Idazkariarena:

- Itziar Mezo Urrutia, Zergak eta Diru-Bilketarako Teknikaria (Bakioko udal funtzionarioa).

Kontratazio Mahai Iraunkorreko kide guztiek ahotsa eta botoa izango dute, idazkaritzaren kargua beteko duen funtzionarioak izan ezik; azken horrek ahotsa besterik ez du izango.

Mahaiak alde zuzenetik erabakita eta mahaiburuak hala eskatuta, Kontratazio Mahai Iraunkorreko bileretara bertaratu ahalko dira beharrezkoak diren funtzionarioak edo aholkulari espezializatuak, betiere jorratu beharreko gaien nondik norakoak kontuan hartuz; horiek ahotsa izango dute baina ez botorik.

Mahaia baliozkotasunez osatzeko, kideen gehiengo osoak bertaratu beharko du eta, edozein kasutan ere, mahaiburuak, idazkariak eta organoaren aholkularitza juridikoari eta ekonomia eta aurrekontu arloko kontrolari dagozkion eginkizunak betetzen dituen kideak.

Erabaki honetan kontratazio batzaren jardunbidearen erregimenaren inguruan ezarrita ez dagoen guztiari dagokionez, honakoak aplikatuko dira modu subsidiarioan: Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 15-18 artikuluetan ezarritakoa, betiere Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen bigarren azken xedapenak ezarritakoaren arabera.

2.- Kontratazio Mahaiaren osaeraren berri ematea honako aldizkari ofizial honetan: Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta Kontratistearen Profilean.

## **11.- BAKIOKO UDALEKO ALKATE ETA ZINEGOTZIEN JARDUNERAKO KODE ETIKOAREN DEKALOGOIA ONARTU.**

Amets Jauregizar dekalogoaren edukia irakurri dau. Beraz, zinegotzi guztiek, dagoeneko, agiri horren ale bana daukien ezkerro, botoa emoteari ekin deustie eta Udalaren Osoko Bilkurak, bertaratutako zinegotzien aho batez (guztira 11), erabagi hau hartu dau:

**Bakioko Udaleko alkate eta zinegotzien jardunerako kode etikoa onartzea eta Akta honeri eranstea.**

Eguneko aztergaien zerrenda barruan, gai gehiagorik eztabaidatu eta erabagiteko ez dagoanez, alkate andreak batzar hau 19:45ean emon dau amaitutzat, eta horrelaxe egiaztatu dau idazkariak.

Alkate andrea

Idazkaria